



Kabria digitala

Areto nagusia

2022ko
Abenduaren
7an



hezkuntzarako



baliabide
digital
libreak

Hezkuntzarako baliabide digital libreak



10.30 Zer dira hezkuntzarako baliabide libreak, eta zergatik hartu behar ditugu kontutan hezkuntzan.

Miren Berasategi



sistema eragileak, eta
Etxepare Lizeoko ikasleen
esperientziak

10.45 Sistema Eragilea. Ordenagailua pizten duzunik euskaraz ikasi, sortu, garatu, gozatu!

Luberri

Txikilinux

Etxepare lizeoko ikasleak



11.15 Hezkuntzarako tokiko hodeia. Hezkuntza komunitatearen pribatutasuna zaintzen duen hezkuntzaren digitalizazioa

TEKS



11.30 Munduko ezagutza gure baitan. Ezagutza librearekin sortutako hezkuntzarako baliagarriak diren baliabide digital euskaldunak

Abaraska



11.45 Ikasgelan eduki eta baliabide libreak txertatzen. Lanketa ezberdinak proposatzen dituzten egitasmoak

Ikusgela + Digitalizazioaren hariak



2022 Parte hartzaileak

Miren Berasategi Deustuko Unibertsitateko Komunikazio saileko ikerlari eta irakaslea da. Komunikazio digitala eta datuen bistaratzearekin zerikusia duten ikasgaiak ematen ditu. 2020ean defendatu zuen doktore tesia, honako izenburupean: Datuen kazetaritzaren lanketa Komunikazioko graduatan: proposamen bat antsietate matematikoaren eta honek errendimenduan duen efektuaren ikuspegitik. Bestalde Hezkuntza Librezele taldean jarduten du beste 450 pertsonekin batera hezkuntzarako beste digitalizazio eredu bat bultzatzeko helburuarekin. <https://miren.bz/>

Luberri sistema eragilea. Hezkuntzaren digitalizazioan euskararen presentzia ordenagailuetan ziurtatzeko sortua. <https://luberrilinux.eus/>

Txikilinux sistema eragilea. Hezkuntzako ordenagailu zaharrei bigarren bizitza bat emateko sortua. <https://www.elkartenet.eus/>

Baionako Etxepare Lizeoko ikasleak euren egunerokotasunean software librearekin zelan dihardute azalduko dute.

<https://www.betxepare.eus/>

Teks teknologia libreak garatzen dituzten eragileen sarea. Hezkuntzaren digitalizaziorako erabiltzen diren azpiegiturak, hezkuntza prozesuan eragina dutela azalduko dute. <https://teks.eus/>

Abaraska taldeak, Fedibertsoaren aldeko euskaldun talde bat da, horrek esan nahi duen guztiarekin: software librea, euskara, burujabetza teknologikoa, pribatutasuna, interfaze eta algoritmo ez adiktiboak... Euskal ikasleentzat ingurune egokiagoak direnak. Irakasleak euskaraz Fedibertsoan dituzten baliabideak aurkeztuko dizkigute, hala nola: peertube.eus, pixelfield.eus, lemmy.eus,...
<https://peertube.eus>

Ikusgela Euskarazko bideo pedagogiko libreak sortzen dabilta Ikusgela proiektuen bitartez **Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak**.
<http://wikimedia.eus/ikusgela/>

Digitalizazioaren hariak Azkue Fundazioak Bizkaiko ikastetxeetan DBH eta Batxilergorako hezkuntza digital kritikoa STEAM proiektuen bidez sustatzen dabil Digitalizazioaren Hariak egitasmoaren bidez.

<http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/>